



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezeziel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko urtarrilaren 21ean, 19:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKUREKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 4 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. TAXI LIZENTZIA.

Zerbitzua hutsik gelditu dela ikusirik, aho batez erabaki da, autotaxirako lizentzia bat lehiaketa bidez adjudikatzeko deialdia onestea. Esleipena arautzeko baldintzak onetsi dira ere.

3. ESKUALDEKO LANBIDE HEZIKETA.

Udalbatzak aho batez erabaki du, eskualde osorako lanbide heziketa zentro integratu berri baten proiektuari atxikimendua ematea eta ondoko hau adieraztea:

- Eskualdean zerbitzu/baliabide hau berrantolatzeko premia dago. Nafarroan eratu berria den Gobernuak ere hala bilduta dauka bere Gobernu akordioan. Honekin gure eskualderako aukera berri bat zabaltzen da.
- Eskualderako erreferentea izango dena, kokapen zentralizatu batean, euskalduna eta hezkuntza eskaintza berritua eta eskualdeko beharrei egokitzeko aukerak emango dituena.
- Prestakuntza reglatua eta ez reglatuaren aukera emango duena, gazte, heldu, langile eta langabetuentzako prestakuntza bat emango duena, goiz eta arratsalde.
- Atxikimenduari batera Zentro Integratu berria bideratzeko prozesu honetan aktiboki parte hartzeko prest gaudela adierazten da.

4. ZENBAIT ESKARI.

Aho batez erabaki da, 50 euroko diru-laguntza ematea Erentzun eta Ibaialde Ikastolei, Nafarroa Oinez antolatzeko.

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- 2015eko azaroaren 19koa, I.J.ri lizentzia eman ziona, *Luisenea* etxeko sotoko atea zabaltzeko eta sotoko lurrean porlana bota eta paretak luzitzeko.
- 2015eko azaroaren 30ekoa, T.G.ri lizentzia eman ziona, *Domintxenea etxeko* teilatua konpontzeko eta teilategalak eta fatxadak pintatzeko.
- 2015eko azaroaren 30ekoa, T.G.ri lizentzia eman ziona, *Domintxenea etxearen* ondoan daukan garajeko teilatua konpontzeko.
- 2015eko azaroaren 30ekoa, T.G.ri lizentzia eman ziona, 20 metro karratuko egurtegi irekia eraikitzeko, *Domintxenea etxearen* ondoan daukan garajeari atxikia.
- 2015eko abenduaren 10ekoa, J.L.S.i lizentzia eman ziona, *Ameztia* parajearen erori den pareta berregiteko harriak aprobetxatuz.
- 2015eko abenduaren 10ekoa, *Elutsa* parajearen oihan-aprobetxamendua ateratzeko, J.S.ek ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2015eko abenduaren 23koa, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.ri lizentzia eman ziona, lurpeko argi-kanalizazioa eta arketa eraikitzeko, R.C. eraikitzen ari den etxebizitza hornitzeko.
- 2015eko abenduaren 23koa, J.J.M.ri baimena eman ziona, 7 erlategi jartzeko *Mindegiko borda* parajearen (3 poligonoko 157 partzela).
- 2015eko abenduaren 23koa, J.M.E.ri lizentzia eman ziona, *Ameztia* parajearen (4 poligonoko 656 partzela), 5 metroko luzaerako harrizko pareta eraikitzeko, lurrari eusteko.
- 2015eko abenduaren 28koa, J.J.H.i agindua eman ziona, *Albarrengobordan* egiten ari zen obrak bertan behera uzteko.
- 2015eko abenduaren 28koa, A.D.i lizentzia eman ziona, *Xapadoa* etxeko komunean obra txikiak egiteko (bainuontzia kendu eta dutxa jarri).
- 2015eko abenduaren 28koa, J.M.E.ri baimena eman ziona, *Gorospillaga* parajearen (3 poligonoko 8 partzelaren zati batean), alanbreko itxitura berritzeko.
- 2015eko abenduaren 28koa, T.O.ri lizentzia eman ziona, harrizko zokaloa jartzeko *Txapado Berri* etxeko fatxadan, hezetasun arazoak konpontzeko.
- 2015eko abenduaren 28koa, T.O.ri lizentzia eman ziona, *Txapado* baserriko teilatua konpontzeko.
- 2016/01 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 14koa, J.I.U. letratua izendatu zuena, 91/2015 prozedura laburtuko bistara joateko Udalaren izenean.
- 2016/02 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 18koa, J.I.U. letratua izendatu zuena, Udala defendatu eta ordezkatzeko 91/2015 prozedura laburtuan.
- 2016/03 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 20koa, *Elbitzuri* parajearen oihan-aprobetxamendua ateratzeko, L.M.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/04 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 20koa, M.J.ri lizentzia eman ziona, *Zamalbide* parajearen (4 poligonoko 658 partzela) daukan egurtegi irekia handitzeko, material zaharrak berrerabiliz.
- 2016/05 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 20koa, J.I.ri lizentzia eman ziona, *Ibarren* parajearen, 4 poligonoko 919, 920 eta 921 partzelen inguruan pikete eta alanbreko itxitura jartzeko.
- 2016/06 zenbakia, 2016ko urtarrilaren 20koa, L.S.i lizentzia eman ziona, *Oiztarreneko bordan* daukan etxolari teilatuko teilak aldatzeko (4 poligonoko 986 partzela).

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Jabetza Erregistroko idatzia, P.M.k *Andudi* parajea lursaila inskribatzeari buruzkoa; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —A.J.S. eta J.L.L.renak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —A.M.M., P.S., M.M., J.M., P.J.S. eta J.L.S.i—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; 2715/2015 Ebazpenak, abenduaren 22koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen du, langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko eta 3 langile kontratatzeko saiakera egingo du Zubietako Udalak; gonbidapenak bidali dira Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuko arduradun batzuei, Inauterietan etortzeko.

2. Goizetan zubian gertatzen den egoera aztertzeko Foruzaingoarekin eman diren pausoak aipatu ditu idazkariak.

3. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Malerrekako Mankomunitateko aurrekontua onetsi zen.
- Etxebizitza Babestuen Patronatuko bilera: aurrekontuak onetsi ziren; eskriturak sinatuak daude; galdara aldatu beharra dago.
- Baztan Bidasoa Turismo Elkarteko bilera: konponketak egin dira *Eurovelo* bidean; kontratua luzatu zaio langileari.
- Iturengo Udaletxean izandako bilera, *Medikuaren Etxeari* buruz.

4. Aho batez erabaki da herriko gazte-taldeari 500 euroko diru-laguntza ematea, inauteak antolatzeko.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 20:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.